

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Sondikako Udala**

**Ayuntamiento de Sondika**

**2018**





## **AURKIBIDEA / ÍNDICE**

<b>LABURDURAK.....</b>	<b>5</b>
<b>I. SARRERA.....</b>	<b>7</b>
<b>II. IRITZIA.....</b>	<b>8</b>
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia .....	8
II.2 Urteko Kontuei buruzko Iritzia .....	8
<b>III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....</b>	<b>10</b>
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	10
III.2 Diru-sarrerak eta diru-bilketa .....	10
III.3 Langileria .....	11
III.4 Kontratazioa .....	11
III.5 Transferentziak eta dirulaguntzak .....	12
III.6 Beste alderdi batzuk .....	13
<b>IV. FINANTZAREN ANALISIA.....</b>	<b>14</b>
<b>V. URTEKO KONTUAK.....</b>	<b>16</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>19</b>
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarría zaion legeria.....	19
A.2 Aurrekontua eta aldaketak .....	19
A.3 Zergak, tasak eta bestelako sarrerak .....	20
A.4 Transferentziek eta dirulaguntzek eragindako sarrerak .....	21
A.5 Langileen gastuak.....	22
A.6 Ondasun arruntetan eta erosketa eta zerbitzuetan gastuak .....	23
A.7 Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak .....	24
A.8 Aurrekontuko zordunak .....	25
A.9 Kontratazioaren analisisa .....	26
<b>ALEGAZIOAK .....</b>	<b>29</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>ABREVIATURAS .....</b>	<b>31</b>
<b>I. INTRODUCCIÓN.....</b>	<b>33</b>
<b>II. OPINIÓN.....</b>	<b>34</b>
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	34
II.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales.....	34
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL     INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>	<b>36</b>
III.1 Presupuesto y contabilidad .....	36
III.2 Ingresos y recaudación .....	36
III.3 Personal .....	37
III.4 Contratación .....	37
III.5 Transferencias y subvenciones .....	38
III.6 Otros aspectos .....	39
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>	<b>40</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>	<b>42</b>
<b>ANEXOS .....</b>	<b>45</b>
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable .....	45
A.2 Presupuesto y sus modificaciones.....	45
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos .....	46
A.4 Ingresos por transferencias, subvenciones y otros ingresos .....	47
A.5 Gastos de personal .....	48
A.6 Gastos en bienes corrientes y servicios e inversiones.....	49
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas.....	50
A.8 Deudores presupuestarios.....	51
A.9 Análisis de contratación.....	52
<b>ALEGACIONES .....</b>	<b>55</b>

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 25a  
Vitoria-Gasteiz, a 25 de marzo de 2021



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko Zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EBAO	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EIOZ	Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
EOL	6/2018 Legea, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
JEZ	Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
Mankomunitatea	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea.
MUNPAL	Toki Administrazioaren Aurreikuspeneko Mutualitate Nazionala.
OHZ	Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.
TMIZ	Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.
Udalkutxa	Udal Finantzaketarako Foru Funtza.





## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osoko bilkurak onetsitako Lan Programari jarraikiz, Sondikako Udalaren 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: aurrekontuaren honako atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza-eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta dirulaguntzen emakida. azterketa lan hau fiskalizazio-gai den ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren balantzea, ekonomia eta ondarearen emaitzaren kontua eta aurrekontuaren likidazioa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa-prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Sondikako udalerriak 4.495 biztanle zituen 2018ko urtarrilaren 1ean. Udalak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du, zeinak zerbitzu hauek eskaintzen baititu: zabor-bilketa, kale garbiketa, argiteria publikoa, gizarte-ongizatea, enplegu sustapena eta euskara bultzatzea. Gainera, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren atal da, uraren hornidura kudeatu eta bideratze-sarean saneamendu-zerbitzuak ematen dituena.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## II. IRITZIA

### II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Kiroldedia kudeatzeko kontratuak 2017ko ekainean amaitu zuen indarraldia eta 2018an 280.859 euroren kostua izan zuen. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu ditu, derrigorrezkoa baita lizitazio berri bat abiaraztea (ikus A.9).
2. Udalak publikotasun eta lehia printzipioak urratu zituen zerbitzu 1 kontratu txiki modura izapidetzean prozedura ireki erraztu bitartez esleitu beharrean; kontratu horrek 2018an 49.164 euroren kostua eragin zuten (ikus A.9).
3. Ludoteka, gaztetxe eta kultur laguntza zerbitzuen kontratua 1,1 milioi euroan esleitu zen 2015ean hasiera batez 4 urteko eperako eta kontratu berezi modura sailkatu zen, 4 urteko 5 luzapen arte egin ahal izatea aurreikusiz; lehenengo luzapena 2019an egin zen. Sailkapen hori ez da zuzena, zerbitzuetako kontratu arrunt bat baita eta honenbestez, gehieneko iraupena, luzapenak barne, 6 urtekoa izan behar zatekeen (ikus A.9).

Epaitegi honen ustetan, Sondikako Udalak, 1etik 3ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete du 2018ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

### II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. Hona hemen Sondikako Udalaren 2018ko abenduaren 31ko Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	AURREKONTUKO DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan		
		ONDAREKOA		
		AKTIBOA	PASIBOA	ONDARE GARBIA
A.3 OHZ, JEZ sarrerak, 2018an sortu eta 2019an erregistratuak.....	83	83	-	83
A.4 Udalaren aldeko 2018ko Udalkutxaren likidazioa, 2019an erregistratua .....	175	175	-	175
A.5 2018ko Gizarte Segurantzaren eta Elkarkidetzako kuotak, 2019an erregistrat. ....	(19)	-	19	(19)
A.6 2018ko aitortu gabeko gastuak eta 2019an kontrat. baten BEZaren itzulketa ..	(129)	48	177	(129)
A.7 Mankomunitatearen ekarpena 2018ko argiteria konpontzeko, erregist. gabe...	(44)	-	44	(44)
A.8 Aurrekontuko zordunak: zuzendu beharreko saldoa eta zuzkidurako akatsa ....	(212)	(212)	-	(212)
A.8 Sektorean aurreratutako hirigintza lanengatik kobratzeko saldoa .....	115	115	-	115
<b>GUZTIRA</b>	<b>(31)</b>	<b>209</b>	<b>240</b>	<b>(31)</b>

2. Udalak ez du bere ibilgetuari eragiten dioten gertaera ekonomiko guztien kontabilitate-erregistroa bermatzen duen jarraipenik egiten, eta ez du kontabilitate-saldoen elementukako xehetasunik; honenbestez, ezin dugu zehaztu aktibo ez arruntaren saldoek (27,8 milioi euro) 2018ko abenduaren 31ko egoera erreala islatzen duten.





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Epaitegi honen iritzira, aurreko 1. eta 2. paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Sondikako Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeen kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2018ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, arauan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



### III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere jaso dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2018ko ekitaldirako aurrekontua hasiera batean Udalbatzak 2018ko ekainaren 17an onetsi zuen; ordea, arautegiak urtea hasi aurretik behin betiko onestea aurreikusten du.
- 2018ko aurrekontuak ez zuen langileen eranskin bat barne hartzen, ez eta haien ordainsariak xehakatzen zituen nahitaezko aurrekontuko plantilla ere, haborokinetarako eta aldi baterako langileentzako aurreikuspen globalez gain.
- Balantzeko pasibo arrunteko eskudiruzko fidantzen kontuak barne hartzen ditu 2016 baino lehenago egindako kobrantzak, 48.930 eurorenak; Udalak aztertu egin beharko luke horien egiazko eskagarritasuna.
- Oroitidazkiak ez du jasotzen kiroldegiko diru-sarrerekin, 157.042 euro 2018an, egindako konpentsazioa, izan ere, kontratuko aurreikuspenei jarraikiz, zerbitzuaren esleipendunari ordaintzeko erabili ziren (ikus A.3).

#### III.2 DIRU-SARRERAK ETA DIRU-BILKETA

- 2018ko zabor-bilketaren eta estolderiaren tasak biltzeko erroldak ez zituen alkateak onartu, ez ziren jakinarazi eta ez zen horiek borondatezko aldiak ordaintzeko epea zehaztu. Ibilgailuentzako ibi tasaren 2018ko errolda onartzen zuen dekretua ez zen aldizkari ofizialean argitaratu.
- Udalaren webgunean argitaratutako ordenantza fiskalen testuek ez dituzte onartutako azken aldaketak barne hartzen. Gainera, kultur zerbitzuen tarifiaren udalekuen prezioak barne hartu behar lirateke; udalekuek 31.119 euroren sarrerak eragin zituzten 2018an.
- 2018ko ekitaldirako Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen Zergaren tarifiaren eta zaborren tasaren aldaketen testu osoa 2017ko azaroaren 24ko BAOan argitaratu zen, behin-behineko onespena eman ondoren, eta jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren behin betiko onartutzat jo zen ez baitzen erreklamaziorik aurkeztu. Behin betiko onartu izanaren berri 2018ko urtarrilean eman zen; ordea, 2017ko abenduaren 31 baino lehen egin behar zatekeen.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak zabor tasaren diru-bilketa zerbitzua ematen du, 2018an 13.505 euroren kostua izan duena; horren baldintzak dagozkion hitzarmenean arautu behar lirateke. Tasa hori urte naturalaren lehen egunean sorrarazten da eta hiruhilean behin kobratzen da atzeratuta; beraz, 2018ko hirugarren hiruhilekokoak 2019ko otsailean kobratzen dira.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.3 LANGILERIA

- 2018an indarrean zegoen akordio arautzailea, Udalhitz hobekuntza batzuekin, Osoko Bilkurak 2008an onartu zuen eta ez zitzaion publikotasunik eman. Halaber, ez zitzaion publikotasunik eman 2018ko ordainsari igoera onartu zuen erabakiari (ikus A.5).
- 2018an Osoko Bilkurak erabaki zuen urteko ordainsari igoeraren zati bat (% 0,3) produktibitate osagarri bat ordaintzeko erabiltzea, 2.688 euroren zenbatekoan. Osagarri hau langile guztiei proportzio berean eman zitzaien, nahiz araudiak aurreikusten duen langile bakoitzaren etekina, interesa edo ekimena baloratu behar dela.
- Udalak 2018ko LZ aldatu du jaso gabe zeuden ekitaldiko eta lehenagoko urteetako zenbait ordainsari aldaketa jasotzeko. Horregatik, lanpostu guztien berariazko osagarria handitu da, lanpostu bakoitzari dagozkion egitekoen nahitaezko balorazio bidez modu egokian aldaketak baloratu gabe.
- Udalak nomina kitatzean ez ditu bereizten laneko ezgaitasun egoeran dauden langileei ordaindutako osagarriak.
- Udaleko langileen Akordio erregulatzailerak laguntzak aurreikusten ditu erretiro aurreratuentzat, eta azken ordainketa 2016an egin zen. Erretiro aurreraturako pizgarriak ordaintzeko, Giza Baliabideak Arrazionalizatze Programara onartu behar da.
- Udalak ez dizkio Foru Ogasunari aitortzen langileei ordaintzen dizkien gauzako ordainsariak, batik bat bizitza aseguruak, 7.928 euro egin dutenak.

### III.4 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 3 kontratu nagusiak aztertu ondoren -3,5 milioi euroren esleipenei dagozkienak- honako alderdi hauek azalatu zaizkigu (ikus A.9):

- Guztira 2,4 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan (1 eta 2 espedienteak) esleipen-irizpide orokorrak baliatu ziren, baloratuko liratekeen alderdiak edo baloraziorako aplikatu beharreko sistema zehaztu gabe (A akatsa).
- Gainera, aztertutako esleipenen jakinarazpenek ez zituzten hautaketa arrazoitzen zuten argudioak barne hartzen (B akatsa).
- 1,3 milioi euroan gauzatu zen kontratu bati (1 espedientea) ez zitzaion nahitaezkoa den publikotasuna eman EBAOn (C akatsa).
- Ludotekako, gaztetxeko eta kultura-laguntzako zerbitzuen kontratuak % 20 ematen zion jarduera-programa baterako eskaintako zenbatekoari, eta 2 lizitatzailerak lortu zuten puntuaziorik altuena. Egoera honek ez du eskaintzak baztertzen laguntzen eta automatikoki ebaluagarriak diren irizpideetarako hasiera batean aurreikusitako pisua murriztu egiten du. Espedienteetan ez da jaso irizpide hau erabiltzeko justifikazioa (C akatsa).
- Gune berdeak mantentzeko kontratua milioi 1 euroan esleitu zen eta azpikontratazioa % 10era mugatzen zuen, ehuneko hori justifikatu gabe (C akatsa).



### Alderdi orokorrak

- Eskaintza ekonomikoa baloratzean, 3 kontratuetan faktore ekonomikoaren egiazko balioa murrizten zuten formulak baliatu ziren, lizitazio prezioa berdintzen zuten eskaintzei puntuak emanez.
- 3 kontratuetan hobekuntzak edo inbertsioak baloratu ziren; ordea, kontratuak gauzatzean sortutako agirietan ez da jaso horien egikaritza.
- Udalak ez ditu udal kudeatzaileen eta zerbitzu-kontratuen esleipendun diren enpresetako langileen arteko harremana argitzeko eskatutako jarraibideak ebatzi, lan harreman baten aitortza eragin zezaketen ekintzak erabakigarri izatea saihestearren.

### Beste erosketa batzuk

- Berdeguneak mantentzeko kontratua 2018ko otsailaren 28an iraungi zen, baina kontratistak zerbitzu ematen jarraitu zuen, harik eta ekitaldi horretako urriaren 16an beste kontratu bati hasiera eman zitzaion arte; zerbitzu horiek 156.861 euroren kostua izan zuten (ikus A.9).
- 2018an 118.379 euroren kostua izan zuten 3 zerbitzu erosketa txiki modura esleitu zirela ikusi dugu, prozedura ireki bidez izapidetu beharrean. Horien balio zenbatetsia 35.000 euroz beheitikoa izanik, prozedura erraztu laburtu bidez izapidetu ziratekeen.
- Udalak, gutxienez hiru hilean behin, Kontratatzailearen Profilean esleitutako kontratu txikiei buruzko informazioa argitaratu beharko luke, eta alkatearen ebazpen-liburuari dagozkion esleipen-ebazpenak ere transkribatu beharko lituzke.

### III.5 TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK

- Ez dago jaso Osoko Bilkurak hizkuntza-normalizazioko eta bide-garbiketako zerbitzuak Mankomunitatera transferitzeko erabakia; zerbitzu horietarako 466.619 euro jarri ziren 2018an. Gainera, beste ekarpen batzuk egin dira udalei emandako zerbitzuengatik (artxiboen kudeaketa, desfibriladoreen alokairua, ingurumen-laguntza, txakurtegi-zerbitzua, etab.) eta egokiagoa litzateke horiek mandatu modura formalizatzea Mankomunitatea beharrezko dituen baliabideez hornitzen denean.
- Udalak ez du Dirulaguntzen Plan Estrategiko nahitaezkoa onartu.
- Udalak ez zien publikotasunik eman dirulaguntzen emakiden ebazpenei.
- Udalak guztira 71.435 euroren dirulaguntzak eman zizkien udalerriko kultura eta kiroltako 15 entitateri, 500 eta 17.250 euro bitarteko dirulaguntzak izendatuz zuzeneko emakidako ebazpenen bitartez. Laguntza hauek lehia bidez eman behar lirateke, edo horien berezitasunak hala justifikatuz gero, aurrekontuan diru-izendapen nominatiboak jasota.
- 42.750 euroren dirulaguntzak jaso dituzten 4 entitateren justifikazioa aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalerratu dira (ikus A.7):



- 2 kasutan ez da oroitidazkirik aurkeztu (1 eta 3 espedienteak).
- 2 kasutan ez da sarrerak eta gastuak xehakaturako zerrendarik aurkeztu (2 eta 4 espedienteak).
- 3 kasutan ez da egiaztatu zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioetan egunean daudela (1etik 3ra bitarteko espedienteak).
- 3 kasutan, nahiz aurkeztutako fakturak udalaren laguntza baino handiagoak diren, ez da diruz lagundutako proiektuaren justifikazio osoa eskatu (1, 2 eta 4 espedienteak).

### III.6 BESTE ALDERDI BATZUK

- Toki-erakundeak gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko araudira egokitzea 2015eko abenduan amaitu behar zatekeen. Informazio ekonomikoari dagokionez, ez dira Udalaren webgunean barne hartzen 2015az geroko aurrekontuak eta urteko kontuak, eta ez da aurrekontuaren egonkortasun helburuak bete izanari buruzko informaziorik ematen. Berebat, ez da informatzen emandako dirulaguntzez eta kontratu txikiez. Azkenik, Osoko Bilkuraren erabakiak ere zehaztu behar lirateke.
- Udalak ez du hirigintzako hitzarmenen nahitaezko erregistroa egiten, zeinahi hiritarrek eskuragarri izan beharko lukeena.
- Udalak 2016an Artxanda mendiaren hegalean indusketa-produktuen betelana handitzeko jarduerarako udal-lizentzia eman zuen. Alabaina, HAPO berriaren onarpena izapidetzean, agerian geratu da instalazio hori ez dela bateragarria 2006an onartutako Bilbo Metropolitarrako Lurralde Plan Partzialarekin.



#### IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan dago zehaztua.

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2016(*)	2017(*)	2018	2016(*)	2017(*)	2018
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	2.011	2.162	2.299	445	483	511
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	2.735	2.648	2.996	605	592	667
Ondare sarrerak (5. kap.) .....	16	8	4	4	2	1
<b>A. Sarrera arruntak .....</b>	<b>4.762</b>	<b>4.818</b>	<b>5.299</b>	<b>1.054</b>	<b>1.077</b>	<b>1.179</b>
Langile-gastuak (1. kap.).....	1.103	1.065	1.120	244	238	249
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.) .....	1.943	2.022	2.122	430	452	472
Transferentzia eta dirulaguntza arruntak (4. kap.) .....	1.636	1.597	1.558	362	357	347
<b>B. Funtzionamendu-gastuak .....</b>	<b>4.682</b>	<b>4.684</b>	<b>4.800</b>	<b>1.036</b>	<b>1.047</b>	<b>1.068</b>
<b>Aurrezki gordina (A-B) .....</b>	<b>80</b>	<b>134</b>	<b>499</b>	<b>18</b>	<b>30</b>	<b>111</b>
- Gastu finantzarioak eta maileguen amortizazioa (3 eta 9 kap.)	-	-	-	-	-	-
<b>Emaitza arrunta = Aurrezki garbia .....</b>	<b>80</b>	<b>134</b>	<b>499</b>	<b>18</b>	<b>30</b>	<b>111</b>
Inbertsioen besterentzea (6. kap.) .....	456	-	-	100	-	-
Jasotako kapitaleko dirulaguntzak (7. kap.).....	3	37	17	1	8	4
- Inbertsio errealak (6. kap.) .....	(88)	(292)	(126)	(19)	(65)	(28)
<b>Kapitalezko eragiketen emaitza.....</b>	<b>371</b>	<b>(255)</b>	<b>(109)</b>	<b>82</b>	<b>(57)</b>	<b>(24)</b>
Eragik. ez finantzarioaren emaitza (1etik 7rako kap.)...	451	(121)	390	100	(27)	87
Diruzaintza-geldikin likidoa.....	1.045	828	1.170	231	185	260
Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina .....	1.045	793	1.170	231	177	260
<b>Zorpetzea 12.31n .....</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

(\*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

**Sarrera arruntak:** % 11,3 egin dute gora 2016ko urtearen aldean.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 14,4 egin dute gora aztertutako aldiaren, katastro balio berriak aplikatu izanaren ondorioz OHZan eta EIOZaren kasuan abiarazitako ikuskaritzaren ondorioz.
- **Transferentziak eta dirulaguntzak:** % 9,5 egin dute gora antzeko bariazioa izan dutelako, % 10,2, osagai nagusi den Udalkutxak gora egin duelako.

**Funtzionamendu-gastuak:** Bere horretan eutsi diote 2017an eta % 2,5 egin dute gora 2018an, xehakapen honekin:

- **Langile gastuak** 2018an 2016an baino % 1,5 handiagoak izan ziren, 2017 eta 2018ko soldata igoeren ondorioz, % 1 eta % 1,75 hurrenez hurren, eta horren eragina murriztu egin zen bete ez zen lanpostu huts baten eraginez.



- **Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak** % 9,2 igo ziren 2016arekin alderatuta, eta nabarmentzekoa da enpresek egindako lanen partida % 11,8 igo zela (berdeguneak zaintzea nagusiki), eta diru-bilketa sarien igoera, 2017an hasitako ikuskaritzajardueraren ondorioz.
- Aldi horretako **transferentzia eta dirulaguntzek** % 4,8 egin zuten behera, ehuneko berean murriztu baita (% 3,9) Mankomunitateari egindako ekarpena.

**Aurrezki gordina, garbia eta Zorpetzea:** Aurrezki gordinak erakundearen autofinantzaketa maila neurtzen du eta 2016an sarrera arrunten % 1,7 zen eta onera egin du hirurtekoan; honenbestez, Udalak 2018an sarrera arrunten % 9,4 izan zuen inbertsioak finantzatzeko, 499.049 euro.

Udalak ez du kanpoko finantzaketara jo beharrik izan.

**Kapital-eragiketen emaitza:** Aztertutako aldian egindako inbertsioak 506.084 eurorenak izan dira hirurtekoan, sarrera arrunten % 3,4 hirurtekoan eta, nagusiki, finantzatu dira 2016an 455.500 euroan egindako lursail baten salmentarekin eta berezko baliabideekin.

**Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina:** % 12 egin du gora 2016ko abenduaren 31n zegoenak, izan ere 2017an eta 2018an sortutako aurrezki garbiak kapitalezko eraiketen emaitza gainditu du 268.755 euroren zenbatekoan.

**Ondorioa:** Eragiketa arruntek sortutako aurrezkiak hobera egin du sarrerak gehitzean eta 2018an sarrera arrunten gainean % 9,4 egin du, inbertsioak finantzatzeko eskuragarri. 2018ko abenduaren 31n gastu orokorretarako geldikinak hirurtekoko inbertsioak bikoizten ditu.

**Aurrekontuaren egonkortasuna:** Udaleko Kontu-hartzailetzaren txostenean egiaztatu da aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia betetzen dela likidazioari dagokionez, eragiketa ez-finantzarioetan superabita lortu delako eta gastu-arauaren ondorioetarako gastu konputagarriak % 0,1 handitu direlako, 2018rako ezarritako mugaren azpitik (% 2,4). Zorpetzeari dagokionez, Udalak ez du zorpetzerik baliatu behar izan.



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### 2018KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSK.	AURREKONTUA			ESKUBIDE KITAT.	KOBRA.	KOBRA. GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Zerga zuzenak .....	A.3	1.200	14	1.214	1.306	1.231	75	108
2.- Zeharkako zergak .....	A.3	290	-	290	235	211	24	81
3.- Tasak eta bestelako sarrerak .....	A.3	697	19	716	758	745	13	106
4.- Transferentzia arruntak .....	A.4	2.956	-	2.956	2.996	2.996	-	101
5.- Ondare sarrerak .....		2	-	2	4	4	-	200
6.- Inbertsio errealen besterentzea .....		125	-	125	-	-	-	E/E
7.- Kapitallezko transferentziak .....	A.4	15	2	17	17	2	15	100
8.- Aktibo finantzarioak .....		-	422	422	2	2	-	E/E
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>5.285</b>	<b>457</b>	<b>5.742</b>	<b>5.318</b>	<b>5.191</b>	<b>127</b>	<b>(*)100</b>

(\*) Exekuzioaren % kalkulatzekoan Diruzaintza Geldikin bidez finantzatzearen eragina zuzendu da.

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSK.	AURREKONTUA			OBLIG. AITORT.	ORDAIN. ORDAINK.	GABEA	% EXEK.
		HASIER.	ALDAK.	B.BETIK.				
1.- Langileria-gastuak .....	A.5	1.187	-	1.187	1.120	1.120	-	94
2.- Ondasun arrunten eta zerb. kontrat... ..	A.6	2.374	91	2.465	2.121	1.951	170	86
3.- Gastu finantzarioak .....		1	-	1	-	-	-	E/E
4.- Transferentzia arruntak .....	A.7	1.576	5	1.581	1.558	1.553	5	99
6.- Inbertsio errealak .....	A.6	147	361	508	127	115	12	25
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>5.285</b>	<b>457</b>	<b>5.742</b>	<b>4.926</b>	<b>4.739</b>	<b>187</b>	<b>86</b>
<b>SARRERAK - GASTUAK</b>					<b>392</b>			

### AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	ERANSK.	HASIER.	BALIOG.	KOBRA./ ORDAIN.	AZKEN ZORRA
		ZORRA			
Zordunak .....	A.8	508	(48)	108	352
Hartzekodunak .....		250	(1)	242	7
<b>AURREKONTU ITXIEN EMAITZA</b>			<b>(47)</b>		





Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Eskubide kitatuak.....	5.318
Obligazio aitortuak.....	4.926
<b>INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>392</b>
<b>AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(*)1</b>
<b>Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza</b>	<b>393</b>
Finantzaketako desbideratzeak.....	-
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	134
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA DOITUA</b>	<b>527</b>

(\*) Udalak ez ditu aintzat hartzen zor saldoen baliogabetzeak, 48.157 eurorenak.

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikin likidoa 18.1.1ean.....	828
Ekitaldiaren aurrekontuko emaitza.....	393
Huts egindakoen hornidurarako dotazio aldaketak.....	(51)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 18.12.31-N</b>	<b>1.170</b>
Diruzaintza.....	1.329
Aurrekontuko zordunak (A.8).....	479
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	1
Aurrekontuko hartzekodunak.....	(194)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(332)
Aplikatzeko daudenak.....	(1)
<b>DIRUZAINZA GELDIKINA 18.12.31-N</b>	<b>1.282</b>
Kaudimen-gabeziatarako hornidurak (ikus A.8).....	(112)
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza-geldikina.....	-
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA 18.12.31-N</b>	<b>1.170</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

EGOERAREN BALANTZEA 2018 ETA 2017KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2018	2017	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2018	2017
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>		<b>27.755</b>	<b>5.182</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>28.987</b>	<b>6.049</b>
Ibilgetu ukierzina .....		540	594	Ondarea .....	37.154	37.154
Ibilgetu materiala .....		24.166	1.022	Sortutako ondarea .....	(8.196)	(31.136)
Ibilgetuko inbertsioak .....		99	84	Balio aldatetarikoko doiketak .....	(10)	-
Lurraren Ondare Publikoa .....		2.950	3.470	Jasot. dirulag., emaitz. egotzi gabe .....	39	31
Epe luz. finantza inbertsioak .....		-	12			
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>		<b>1.762</b>	<b>1.353</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>530</b>	<b>486</b>
Zordunak eta kobratz. beste knt. b. ... A.8		368	394	Kudeaketaren hartzekodunak .....	184	268
Epe motz. finantza inbertsioak .....		65	70	Administrazio publikoak .....	67	58
Eskud. eta bst. akt. lik. balioak .....		1.329	889	Zor eta ordaintzeko beste kontu batzuk .....	279	160
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>		<b>29.517</b>	<b>6.535</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>29.517</b>	<b>6.535</b>

B. 2018 eta 2017KO EKONOMIA ETA ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA Euroak milakotan

	2018	2017
Zerga eta hirigintzako diru-sarrerak .....	2.203	2.096
Jasotako transf. eta dirulaguntzak .....	3.005	2.678
Salmentak eta zerbitzuen prestazioa .....	10	15
Kudeaketa arrunteko beste sarrera b. ....	68	52
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>5.286</b>	<b>4.841</b>
Langileen gastuak .....	(1.122)	(1.066)
Transferentziak eta emandako dirulaguntzak .....	(1.558)	(1.622)
Kudeaketa arrunteko beste gastu b. ....	(2.116)	(2.042)
Ibilgetua amortizatzea .....	(2.029)	(2.183)
<b>KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>(6.825)</b>	<b>(6.913)</b>
<b>KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>(1.539)</b>	<b>(2.072)</b>
Arruntak ez diren beste partida batzuk .....	1	1
<b>ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZA</b>	<b>(1.538)</b>	<b>(2.071)</b>
<b>ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA</b>	<b>(42)</b>	<b>(86)</b>
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b>(1.580)</b>	<b>(2.157)</b>

## ERANSKINAK

### A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Sondikako Udala Administrazioiko toki entitatea da, oinarrizko ezaugarrietan Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta 2/2026 Legeak, Euskadiko Toki Entitateei buruzkoak, arautzen dutena.

Arautegi horrek udalek ematen dituzten eskumenak edo zerbitzu publikoak definitzen dituzte, besteak beste: segurtasuna, garbiketa-zerbitzua, suteak itzaltzeko zerbitzua, ur-hornidura, saneamendu-sarea, argiteria publikoa, hirigintza-diziplina, kultura- eta kirol-jarduerak.

Zerbitzu hauek nagusiki honako hauen bidez finantzatzen dira: zerbitzu jakin batzuen zerga, tasa eta prezio publikoak, zerga itunduetan parte-hartzeagatik sarrerak, ondare sarrerak, diru-laguntzak eta kreditu eragiketak.

Ekitaldian ezargarrria den aurrekontuko eta kontularitzako araudi nagusia 10/2003 Foru Arauak jasotzen du, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, eta 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontularitzako araudi-esparrua onartzen duenak.

### A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2018ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2018ko urtarrilaren 17ko Osoko Bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko martxoaren 7an eman zen argitara.

Hona hemen, 2018ko aurrekontu-aldaketak kapituluka xehakaturik:

KAPITULUAK	Kredit. txertaketa	Kreditu gehigar.	Kredituen gaikuntza	Transferentziak		GUZTIRA
				+	-	
1. Zerga zuzenak .....	-	-	14	-	-	14
3. Tasak eta bestelako sarrerak .....	-	-	19	-	-	19
7. Kapitalezko transferentziak eta dirulagun. ....	-	-	2	-	-	2
8. Aktibo finantzarioen bariazioa: Geldikina .....	167	255	-	-	-	422
<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>167</b>	<b>255</b>	<b>35</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	<b>457</b>
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak .....	60	10	33	20	(32)	91
4. Transferentzia arruntak .....	5	-	-	-	-	5
6. Inbertsio errealak .....	102	245	2	12	-	361
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>167</b>	<b>255</b>	<b>35</b>	<b>32</b>	<b>(32)</b>	<b>457</b>

Onartutako 7 aldaketa-espeditentek gastuen hasierako aurrekontua % 8,7 gehitu dute.

2018ko ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioa 2019ko martxoaren 21eko Alkatetzaren Dekretu bidez onartu zen eta Kontu Orokorra 2019ko uztailaren 17ko Udalbatza bitartez.

### A.3 ZERGAK, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Hona hemen Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehaztuta:

	Euroak milakotan
<b>KONTZEPTUA</b>	<b>Sarrera</b>
Ondasun higiezinaren gaineko zerga .....	727
Trakzio mekanikodun lbigailuen gaineko zerga.....	317
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga .....	168
Hiri izaerako lursailen balioaren gaineko zergaren igoera.....	94
<b>1. KAPITULUA GUZTIRA, ZERGA ZUZENAK</b>	<b>1.306</b>
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga .....	235
<b>2. KAPITULUA GUZTIRA, ZEHARKAKO ZERGAK</b>	<b>235</b>
Zabor-bilketa.....	383
Estolderia .....	57
Udalekuak, kultura-etxeko ikastaroak eta jardueretarako sarrerak.....	70
Enpresa hornitzaileek lurra, lur azpia eta hegala okupatzea .....	67
lbigailuak espaloitik sar. eta bide publik. aparkatz. erres. ....	58
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak .....	9
Jabari publikoa okupatzeagatiko tasa .....	9
Telefono-enpresen konpentsazioak .....	24
Isunak eta zehapenak.....	37
Premiamendu eta berandutza interesen errekarquak .....	30
Bestel. kudeaketa sarrerak.....	14
<b>TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK 3. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>758</b>
<b>1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA</b>	<b>2.299</b>

Udalak kutxa irizpidea aplikatu zuen OHZ, JEZ eta zabor-bilketa tasaren diru-sarrerak aitortzean, ekitaldi horretako kobrantza-errolak aitortu beharrean.

- BFAk OHZ eta JAE borondatezko epean jasotzen ditu, konturako entregak eginez eta urteko likidazioak gauzatuaz hurrengo ekitaldi hasieran. Bi kontzeptu horientatik 2018ko likidazioa 82.608 euro izan zen. Udalak ez ditu kobrantzak gertatzen diren ekitaldian erregistratzen.
- Zaborrak biltzeko tasa hiruhilean behin kobratzen da eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak biltzen du; Udalak jasotako kopuruak erregistratzen ditu. 2018ko 2. seihilekoan kobratutako ordainagiriak 2019an kitatu zitzaizkion Udalari eta honenbestez, ez ziren diru-sarrera modura aitortu diru-sarrera zorpetu zen urtean. 2. hiruhileko kobrantzak eta 2018ko kobratzeko zeuden ordainagirik guztira 224.565 euro egin zuten.

2018an diru-sarrerak erregistratu ziren ekitaldi itxietako ikuskaritza-akten ondorioz, guztira 112.945 euroren zenbatekoan; horietatik 24.355 eta 44.490 euro JEZi eta EIOZi zegozkion.

Udalak 2001ean Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoari ur-horniduraren kudeaketa osoa eskualdatu zion, zegokion tasa barne, eta Udalak Partzuergoko eskualdeko kolektoreekin bat egiten duen estolderia-sareari eutsi zion. Hitzarmena 2018ra artekoa zen eta urte horretan



2020ko irailera arte luzatu zen, Udala bigarren mailako sarean hobekuntzak egitera behartuz; ordea, 2018ko abenduaren 31n 49.864 euroren lanak zeuden egiteko.

Zerbitzuaren enpresa emakidadunak tasa biltzen du, eta tasa horrek murriztu egiten du Udalari jasanarazitako zerbitzuaren kostua; honenbestez, ez dira erantsitako Kontuen diru-sarrera modura barne hartzen.

#### A.4 TRANSFERENTZIEK ETA DIRULAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2018an transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalezkoek eragindako sarrerak:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Zenb.
<b>BIZKAIKO FORU ALDUNDIA</b>	
Udalkutxa: zerga itunduetan partaidetza - konturako ordainketak 2018.....	2.859
Udalkutxa: zerga itunduetan partaidetza 2017 likidazioa.....	43
Kultura jarduerak .....	15
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>	
Lanbide: Enplegu-plana 2017-18 eta 2018-19 .....	15
Bake epaitegia eta beste txikiago batzuk.....	3
<b>BESTELAKOAK</b>	
Loiuko Udala: Sondikako eskola publikoko gastuak.....	55
Itunpekoak ez diren zergetan partaidetza eta beste txikiago batzuk .....	6
<b>4. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>2.996</b>
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>	
Irisgarritasuna .....	15
Liburuak .....	2
<b>7. KAPITULUA GUZTIRA</b>	<b>17</b>

Zerga itunduetan (Udalkutxa) Udalaren partaidetza kontzeptuan erregistraturiko diru-sarrerak 2018ko ekitaldiko konturako ordainketei dagozkie. Urte horretako 175.329 euroren likidazio positiboa 2019ko otsailean onartu zen eta Udalak 2019ko diru-sarrera modura erregistratu zuen.



## A.5 LANGILEEN GASTUAK

Gastu kapitulu honen xehakapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Gastua 2018	Euroak milakotan	
		LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 18.12.31
Udalkideak (alkatea) .....	57	-	1
Funtzionarioak.....	762	19	(*)17
Aldi baterako lan-kontratuko langileak .....	18	-	-
Aparteko sariak eta produktibitatea.....	14	-	-
<b>Ordainsarien guztizko partziala .....</b>	<b>851</b>	<b>19</b>	<b>18</b>
Gizarte Segurantzari kotizazioak.....	194		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak-Elkarkidetzak .....	18		
10 zinegotzi bileretara bertaratzea.....	49		
Gizarte laguntzak eta osagarriak.....	8		
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.120</b>		

(\*) Lanpostu huts bat betetzen duen bitarteko funtzionario 1 barne hartzen du eta titularraren gaixotasunagatik bitarteko funtzionario 1 3 lanpostu huts.

Langileen ordainsariak % 1,5 gehitu ziren, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, eta % 0,25 gehiago 2018ko uztailearen 1etik aurrerako ondorioekin. Gainera, Estatuko Aurrekontuen Legeak % 0,3 gehigarri bat ordaintzea aurreikusten zuen eta Osoko Bilkurak erabaki zuen langile guztiei produktibitate osagarri bat ordaintzeko baliatzea.

2018ko abenduko Gizarte Segurantza eta Elkarkidetzako kotizazioak, 19.123 eurorenak, 2019an ordaindu eta erregistratu ziren.

Udalak gaixotasun arruntagatiko lanerako ezintasunagatiko nahitaezko prestazioak ordaintzen dizkie Munpaletik datozen 12 funtzionarioei (% 60, 4. egunetik aurrera eta % 75, 20. egunetik aurrera), baina horren kostua ez da kuantifikatzen, ez baitira bereizten kontzeptu horrengatiko ordainketak. Prestazio hori bere gain hartzeagatik, Udalak 6.382 euro murriztu zituen Gizarte Segurantzari 2018an egindako kotizazioetan. Gainera, Udalak nahitaezko prestazioak osatu zituen kalkulatzeko ez den kopuru batekin.

2018ko ekitaldian Udalak bitarteko 2 funtzionario kontratatu ditu lanpostu huts bat betetzeko eta gaixotasunagatiko funtzionario bat ordezkatzeko.

## A.6 ONDASUN ARRUNTETAN ETA EROSKETA ETA ZERBITZUETAN GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen kontratazioak honako xehakapen hau du:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	Gastua
Jai, pelikula eta abarretarako azpiegituren alokairua.....	92
Eraikuntzak eta instalakuntzak konpondu eta zaintzea.....	165
Bulegoko materiala.....	41
Argindarra hornitzea.....	56
Gasa, ura, erregaiak, lanabesak eta bestelakoak hornitzea.....	75
Komunikazioak eta garraioa.....	31
Erantzukizun zibil, eraikin eta ibilgailuen aseguruak.....	41
Hainbat gastu.....	81
Kamisetak, zapiak, hornigaiak eta jaietako beste gastu batzuk.....	34
Prensa-bulegoa.....	18
Hemendik 2018 akordioa, Uraren Euskal Agentzia eta beste txikiago batzuk.....	29
Enpresek egindako lanak.....	1.537
Udal eraikinen garbiketa.....	365
Berdeguneen mantentze-lana (2 kontratista).....	299
Kiroldegiaren kudeaketa.....	281
Ludoteka, gaztetxea eta kultur laguntza.....	249
Diru-bilketa eta Zerga ikuskaritzan laguntza.....	81
Jai eta kultur ekitaldietarako kontratazioak (73 faktura).....	95
Jai eta kultur jardueretarako instalazio elektrikoa muntatu eta desmuntatzea.....	39
Laguntza juridikoa, diru-bilketa sariak, informatika zerb., itzulpena, etab.....	128
Lokomozio-gastuak.....	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.121</b>

Hona hemen egindako inbertsioen xehakapena:

	Euroak milakotan
DESKRIBAPENA	Gastua
Goronda Beheko bideko goiko pasabidea eta Lehendakari Agirren pasabidea egokitzea.....	12
Bagatza bidean murrua eraisteko lanak.....	59
Asua ibaia ubideratzeko desjabetutako lursailen erosketak.....	19
Kiroldegian eta futbol zelaian barandak.....	15
Azterlanak eta proiektuak San Juan plaza itxi eta betelana eta futbol zelaiko aldagela.....	15
Beste inbertsio batzuk (informatikako ekipoak, bibliografia-funtsak, e.a.).....	7
<b>GUZTIRA</b>	<b>127</b>

Udalak 2019ko ekitaldiaren kontura fiskalizatutako ekitaldiko fakturak erregistratu zituen, 177.069 euroan. Bestalde, kirol instalazioak kudeatzeko 2018ko kontratu-gastuek 47.577 euroren BEZa gehitzen zuten eta gastu horiek Udalari 2019an ordaindu zitzaizkion.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## A.7 EMANDAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA ARRUNTAK

Hona hemen transferentzia eta dirulaguntzen xehakapena:

	Euroak milakotan
ONURADUNA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERA	Gastua
<b>SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK</b>	<b>1.454</b>
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea, 2018ko aurrekontuari ekarpena .....	1.445
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea, aurreko urteak eta beste .....	9
<b>DIRULAGUNTZA IZENDUNA merkatarien elkarteari</b>	<b>2</b>
<b>DIRULAGUNTZA ZUZENAK</b>	<b>73</b>
Jaiak: Sondikako Inauterien Elkarte (1. espedientea) .....	17(*)
Jaiak: Artxandako Roke Deunaren Jaiak Elkarte .....	6
Kirola: Sondika Kirol Taldea (2. espedientea) .....	16(*)
Kirola: Hegalariak Futbol Sala, Sondikako Kirol Zaleak eta Sondika Motor Elkarte .....	4
Kultura: Altzora Euskara Elkarte (3. espedientea) .....	6(*)
Kultura: Gorontzaileak Dantza, Olague Abesbatza, Elai Txistulari, Pentagrama .....	16
Hezkuntza: AMPA C.P. Gorondagane (4. espedientea) .....	4(*)
Beste erakunde batzuk Sondikako jubilatuen elkarte .....	2
Partaidetutako erak.: Bilbao Metropolitanarra Berrindartzeko Elkarte, Innobasque eta Jataondo Elkarte ..	2
<b>BESTELAKOAK</b>	<b>29</b>
Zinegotzien 3 udal talderi diru-laguntzak .....	26
Eudel eta lehiaketetako sariak .....	3
<b>4. KAPITULUKO GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>1.558</b>

(\*) 4 espediente horietan aurkeztutako ziurtagiriak aztertu dira.

Mankomunitatearen Estatutuek ez dute zehazten 6 udalek egin beharreko ekarpen osoa kalkulatzeko sistema, eta Osoko Bilkurak aurrekontuaren zenbatespenen arabera kalkulatu du, egikaritze-datu egiazkoekin likidaziorik egin gabe. Udalaren arabera banaketari dagokionez, Estatutuek diote biztanleak edo beste irizpide tekniko batzuk hartuko direla aintzat:

	Euroak milakotan	
KONTZEPTUA-ZERBITZUA (banaketa-irizpidea)	(**) %	Ekarpena
Zabor-bilketa (zerbitzuaren kostuaren analisia udalerraren arabera) .....	18,6	374
Bide-garbiketa (zerbitzuaren kostuaren analisia udalerraren arabera) .....	24,0	361
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak (biztanleak), etxeko laguntza (zerbitzu-orduak) eta gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea (kasu kopurua) .....	25,3	207
Herriko argiak (argi-puntuaren kopurua) .....	17,1	186
Euskaltegia (ikasle kopurua) eta sustapen-jarduerak (biztanleak) .....	20,7	105
Enplegu sustapena - Behargintza Txorierrri, SL (biztanleak eta enpresa-kopurua) .....	20,9	53
Mankomunitatearentzako beste zerb. edo enkargu batzuk (biztanleak, zerb.-unitateak, etab.) (*)	19,6	40
Gastu orokorrak (biztanleak .....	20,2	119
<b>MANKOMUNITATEAREN 2018ko aurrekonturako ekarpena</b>	<b>20,6</b>	<b>1.445</b>

(\*) Ingurumen-kontratuak, desfibriladoreak alokatzea, HHI zentroa, genero-berdintasunerako programak eta Gaztedi, dokumentuak artxibatzeko eta txakurtegiko zerbitzuak eta 5 diru-laguntza (Instituta, ikasleak euskaraz, Aikor aldizkaria, etab.).

(\*\*) 6 udalek zerbitzuagatik egindako ekarpen guztien ehuneko.



Aurrekontua gauzatzean desbideratzeak gertatu ziren, eta 2018an Mankomunitateak eta bere erakunde autonomoak 482.696 euroren aurrekontu-superabit gehitu doitua eskuratu zuten eta 828.850 euro egin zituen aipatutako bi erakunde horien 2018ko abenduaren 31ko Geldikin metatuak. Gainera, Behargintza Txorierrri SLk 41.166 euroko etekina lortu zuen zergen ondoren, eta 2018ko abenduaren 31n, 241.800 eurokoa izan zen haren ondare garbia.

Mankomunitateari argiteria publikoaren zerbitzurako egindako ekarpenak osagai aldakor bat du egindako konponketen arabera, 43.628 euro 2018an, Udalak ekitaldi horretako abenduaren 31n erregistratu ez zuena.

## A.8 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Hona hemen 2018ko abenduaren 31n aurrekontuko zordunen xehakapena:

KONTZEPTUA	Aurrekontu itxiak				Euroak milakotan	
	18/1/1	Baliog.	Kobr.	18/12/31	2018ko aurrek. 18/12/31	GUZTIRA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....	122	15	45	62	33	95
Trakzio mekanikodun lbilgailuen gaineko zerga .....	131	3	26	102	26	128
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zerga .....	38	1	9	28	15	43
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga .....	49	19	2	28	1	29
Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga .....	14	-	2	12	24	36
Estolderia .....	11	2	4	5	3	8
lbilgailuak espaloitik sar. eta bide publik. aparkatz. erres. ...	54	8	14	32	9	41
Hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak.....	4	-	1	3	-	3
Zehapenak eta beste.....	75	-	-	75	1	76
Beste txiki batzuk.....	4	-	-	4	-	4
<b>1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala</b>	<b>502</b>	<b>48</b>	<b>103</b>	<b>351</b>	<b>112</b>	<b>463</b>
4 eta 7 kap. Transf. eta diru-lag. arrunt eta kapit. ....	-	-	-	-	15	15
8. kap. Aktibo finantzarioak.....	6	-	5	1	-	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>508</b>	<b>48</b>	<b>108</b>	<b>352</b>	<b>127</b>	<b>479</b>
Nekez egingarri diren saldoetarako zuzkidura						(112)
Aurrekontuko kobratzeko saldoak zuzkiduratik garbi						(*) 367

(\*) Balantzeko zordunen 2018ko abenduaren 31ko saldoak 1.128 euro osagarri barne-hartzen ditu, aurrekontuz kanpoko eragiketenak.

2018 baino lehenagoko zerga-zordunen kontabilitate-saldoa ez dator bat ordainagiriaren eta likidazioen xehetasunekin, 81.859 euroan gaintzen duela. Gainera, 2 urtetik gorako antzintasuna zuten ordainagiriak eta likidazioak 242.832 eurorenak ziren, eta, beraz, nekez egingarri ziren saldoetarako hornidura 130.775 euro handitu beharko litzateke.

BFAk OHZ, EJZ eta estolderia-tasa borondatezko bilketa-aldian biltzen ditu. Zabor-bilketaren tasa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak biltzen du, borondatezko aldiaren zein betearazpen aldiaren. Gainerako zerga eta tasetan, Udalak borondatezko epean kobratzeko izapideak egiten ditu, eta, enpresa baten laguntzarekin, dirua biltzeko betearazpen-bidea kudeatzen du.

Udalak 115.105 euroren urbanizazio-lanak egin zituen 2004an, garatu ez den sektore batean. Zenbateko hori sektoreko jabeek jasanarazi beharreko hirigintza-kargen kontura aurreratu zen, nahitaezko birpartzelazioa egin ondoren, eta 2018ko abenduaren 31n kontzeptu horrengatik erregistratu gabeko saldo bat zegoen kobratzeko.

## A.9 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

KONTRATUA	ESLEIPENA								Euroak milakotan		
	Data	Prozed.	Zenb.(*)	Subro- -gazioa	Gastua 2018	AKATSAK					
						A	B	C			
1. Udal eraikinen garbiketa (4 urte).....	aza-2013	Irekia	1.320	8	365	A	B	C			
Aldaketa: eskola eta Haurreskolako eraikin berriak.....	2015 eta 2018				47						
2018 eta 2019rako luzapenak .....	2017 eta 2018										
2. Ludoteka, gaztetxea eta kultur laguntza (4 urte) (**) ....	uzt-2015	Irekia	1.128	6	254	A	B	C			
3. Gune berdeen mantentze lanak (4 urte).....	ira-2018	Irekia	1.042	6	55		B	C			
<b>GUZTIRA</b>			<b>3.537</b>	<b>20</b>	<b>674</b>						

(\*) Esleitutako zenbatekoak BEZa barne.

(\*\*) Kultur laguntza: aisialdiko ikastaroak, uda eta Gabonetako udalekuak, auditorioaren eta Kulturguneko partaid. Kudeaketa.

AKATSAK	Esp. kop.	Esleip. zenb.
A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA: esleipen-irizpide orokorrak eta zehaztu gabeko balorazio-irizpideak .....	2	2.448
B ESLEIPENA ETA EXEKUZIOA: lizitatuzaileei jakinarazpena egitea esleipenaren arrazoia azaldu gabe .....	3	3.490
C BERARIAZKO AKATSAK		

### Beste erosketak batzuk

Gainera, beste erosketak batzuk aztertu ditugu eta ikusi dugu zenbait kontratari indarraldia amaitu zaien arren egikaritzen jarraitu dutela.

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Datak		
	Indarr. amai.	Exek. amai.	Gastua
Kiroldegiaren kudeaketa.....	eka-2017	2020	281
Berdegunen mantentze-lana (otsailaren 28 eta urriaren 16 arteko gastuak).....	ots-2018	urr-2018	157

Halaber, erosketak txiki modura izapidetutako erosketak ere badaude, prozedura ireki erraztu bidez egin beharrean.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

KONTZEPTUA	Gastua
Bide publikoetako seinaleen mantentze-lanak .....	49
Jai eta kultur ekitaldietarako karpa eta plataformaren alokairua (2 kontratista) .....	40
Jaietarako eta kultur ekitaldietarako instalazio elektrikoak .....	38
Aseguru-polizak (6 kontratista) .....	40





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN FISKALIZAZIOAREN EMEITZEI EGINDAKO ALEGAZIOAK, 2018**

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **2. ZERBITZU TXIKI GISA ESLEITZEA**

Epaitegiaren iritziz 49 mila euroko zerbitzu-kontratu txiki bat da (bide publikoen seinaleztapena mantentzea), baina ez da halakoa; izan ere, Cerramientos y Prefabricados Norte SA (CEPRENOR) izeneko enpresari 2018. urtean egindako ordainketen zenbateko osoa 17 kontratu txikik osatzen dute, hornidurengatik (seinaleak eta beste produktu batzuk) eta obregatik (kaleak pintatzea), mantentze-lanetarako; Lanak urtean zehar sortzen ziren beharren arabera egiten ziren, eta, hainbestez, ez zen kontratua zatitzen, haietako bakoitzak bere izaera eta kalifikazioa baitzuen. (Hartzekodunaren fitxaren xehetasunak eta kontraturen baten txosten teknikoaren kopia ere erantsi dira).

Kasu honetan, beraz, ez litzateke nahitaez prozedura ireki sinplifikatua erabili beharko, horietako bakoitzaren zenbateko eta kalifikazio txikia dela eta; hainbestez, ez litzateke egokia iritzi horri eustea.

### **II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**


#### **3. KULTURA-ZERBITZUEI DAGOKIEN KALIFIKAZIOA**

Sondikako Udalak, 2015. urtean, Sondikako Udalak antolatutako kultura-jardueren zerbitzuak emateko kontratua esleitu zuen, administrazio-kontratu berezi gisa kalifikatua, eta argudiatu egingo da.

Lizitazio-prozesua Sondikako Udalak antolatutako kultura-jarduerak emateko administrazio-kontratu berezia 2013ko apirilaren 17an egindako udalbatzarrean erabaki zuen iraungitze-adierazpenarekin hasi zen.

Kontratu mota zehazteko eta plegu berriak egiteko, udal idazkaritzak 2006ko urriaren 16ko txostenean emandako argudioak erabili ziren (horren kopia erantsi da).

Arestion adierazi duguna dela eta, Epaitegiaren interpretazioa zalantzarria dela ulertzen da, eta, horrenbestez, ez litzatekeela azken ondorioen txostenean agertu behar.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## ABREVIATURAS

BOB	Boletín Oficial de Bizkaia.
DFB	Diputación Foral de Bizkaia.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
IAE	Impuesto sobre Actividades Económicas.
IBI	Impuesto sobre Bienes Inmuebles.
ICIO	Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
IVTM	Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.
LPE	Ley 6/2018 de Presupuestos Generales del Estado para 2018.
LRBRL	Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local.
Mancomunidad	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea-Mancomunidad de Servicios del Txorierra.
MUNPAL	Mutualidad Nacional de Previsión de la Administración Local.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.
Udalkutxa	Fondo Foral de Financiación Municipal.







## I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del TVCP, ha fiscalizado la Cuenta General del Ayuntamiento de Sondika para el ejercicio 2018.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

